


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO URRIA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,3 igo ziren 2004ko urrian

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko urria, 2003ko urriarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %7,2 gehitu ziren.

2004ko urrian, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 igo zen, aurreko hilaren aldean, EUSTATen datuen arabera. Urriko urte arteko tasa %7,2ra iritsi zen; %3,8ra lan-eskuarena eta %8,8ra lehengaien kostuarena.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Gehikuntza urriko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

Lehengaien kostuak %0,4 igo ziren, aurreko hilaren aldean, eta bilakaera desberdinak izan zituzten *eraikuntzan* (%0,3) eta *obra zibilean* (%0,6). Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ikusiko dugu kontsumitutako lehengaei dagokienez ibilbide homogeneoak izan zituztela: *eraikuntzako* lehengaien kostuak %8,8 igo ziren eta *obra zibilekoak* %8,6.

Urrian prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *asfalto-produktuak* (%8,2), *petroliotik eratorritakoak* (%8,2), *leherkariak eta gasak* (%2,9), *olioak eta koipeak* (%2,8) eta *metalezko hoditeria* (%2,0) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten, besteak beste, *energia elektrikoa* (%-4,8), *aparatu eta material elektrikoak* (%-0,7), *zementu artifiziala* (%-0,6) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-0,6) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%41,2), *asfalto-produktuak* (%37,6), *burdina eta altzairua* (%36,0), *petroliotik eratorritakoak* (%28,9%) eta *zementutik eratorritako gaiak* (%9,8) lehengaiak. Bestalde, urteko arteko prezioetan (2004ko urria, 2003ko urriaren gainean), murrizketak izan zituzten *beira* (%-4,3), *energia elektrikoa* (%-3,7), *bulego-materiala* (%-2,0) eta *egurra eta kortxoa* (%-0,5) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO URRIA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	115,3	0,3	7,2	7,2	
ERAIKINAK	115,2	0,2	7,3	7,3	
OBRA ZIBILA	115,8	0,4	6,8	6,8	
LEHENGAIEN KOSTUA	113,0	0,4	8,8	8,8	
ERAIKINAK	113,0	0,3	8,8	8,8	
OBRA ZIBILA	113,2	0,6	8,6	8,7	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp